

AMURRIOKO UDAL GOBERNU TALDEAK (EAJ-PSE-EE) ARARTEKOARI ERE BIZKAR EMAN DIO, GOBERNANTZA TXARRA ETA ERRESPETU INSTITUZIONAL EZA AGERIAN UTZIZ.

Aspalditik salatzen ari gara Amurrioko udaletxea zuzentzen duen udal gobernu honek aurrera daraman **gobernantza txarra eta kudeaketa txarra**.

Arbitrariotasunak, diskrezionalitateak eta alde bakarreko erabakiek markatutako kudeaketa eredu honek alde batera utzi ditu elkarrizketa, gardentasuna eta funtzionamendu instituzionalaren oinarritzko arauak errespetatzeko betebeharra.

Soldata-igoera selektiboez, balorazio subjektiboez, irizpide objektiborik ezaz eta LPZn benetako negoziazio edo justifikazio teknikorik gabe egindako aldaketez ohartarazi dugu.

Langileen legezko ordezkaritza duen **Langileen Batzordea (Komitea)** kontuan **hartzen ez** duen gobernatzeko modu honek **plantillaren konfiantza hausten du, eta lan-harremanak larriki kaltetzen ditu**.

Aztergai dugun kasuan, **Langileen Batzordeak berraztertze**ko errekurtsoa aurkeztu zuen lehendabizi, Udalak egindako euskara-teknikariaren lanpostuko ordezkapen irregularra salatuz (**ez zuen Amurrioko Udalaren lan-poltsen erregelamendua errespetatu, eta bertako lan-poltsak erabili ordez, beste administrazio batera jo zuen, zerbitzu juridikoek alde aurretik eta idatziz, hori ezin zuela egin idatziz jakinarazi arren**), eta Udalak berak, berrikusi nahi izan zuen.

Erantzuna isiltasun administratiboa izan zen, eta, ondoren, **justifikazio justifikaezinak, Gobernu-Talde** honek **jada aspalditik diharduen bezala**.

Horregatik, Langileen Batzordeak **Arartekora jo** zuen, erantzun eta errespetu instituzional ezaren aurrean, babes eske.

Arartekoa argia izan da: Udalari **berariaz ohartarazpena** luzatu dio **ordezkapen irregular horrek eragindako pertsonari kalte-ordaina emateko**.

Baina bere erantzukizuna bere gain hartzetik urrun, **gobernu-taldeak Arartekoari ere bizkar ematea erabaki du**.

Oso gertakari larri baten aurrean gaude.

Udala bere langileak legez ordezkatzen dituen **Langileen Batzordearen** eskubideen **gaintik** kokatzen da, eta **baita Arartekoaren gaintik ere**. Arartekoa, herritarrek Administrazioaren aurrean dituzten eskubideak zaintzeaz arduratzen den agintaritza etiko eta instituzional gorena da.

Hau da, **mespretxu bikoitza**:

- **Langileen Batzordea mespretxatzea**; izan ere, hilabeteak daramatza elkarrikit, zorrotasuna eta benetako negoziatzea eskatzen (berehala **300 egun** pasako dira **eskubide hori ofizialki urratuz**), eta **Udala** legez, **borondate onez negoziatzera behartuta** dago **hilabete bateko epean**.
- **Arartekoa mespretxatzea**. Arartekoaren eginkizuna administrazio-jardueretan zuzentasuna, ekitatea eta justizia bermatzea da.

Tokiko gobernu batek horrela jokatzen duenean, **ez gara lan-gatazka bati buruz bakarrik ari**, baizik eta **jokabide autoritario** bati buruz, eta legitimitate demokratiko oro galdu duen kudeaketa-eredu bati buruz.

Eta arazo hori **barne-eremutik askoz harago doa**.

Udal batek Arartekoaren ohartarazpenei jaramonik egiten ez dienean eta kontrol demokratikoko mekanismoen gainetik jartzen denean, **kaltea herritar guztiengana iristen da**:

- **Erakunde publikoekiko konfiantza ahultzen** delako.
- **Arauak ondoriorik gabe bete gabe utz daitezkeela transmititzen** delako.
- Eta **arbitrariotasunetik eta faboritismotik hartutako erabakiek zerbitzu publikoei, aukera-berdintasunari eta udal-kudeaketaren kalitateari eragiten dietelako**.

Bere langileak errespetatzen ez dituen udal batek, udala bera ikuskatzen dituzten erakundeak ere errespetatzen ez dituen udal batek, ez ditu herritarrak errespetatzen.

Eta horrek guztiok kezkatu beharko gintuzke.

Horregatik guztiagatik, Gobernu-Taldeari eskatzen diogu **egoera berehala zuzentzeko, Arartekoaren gomendioa betetzeko, eta alde batera uzteko autoritarismoan, opakutasunean eta mespretxu instituzionalean oinarritutako gobernatzeko modu hori**.

Legearekiko errespetua, erakundeekiko eta pertsonetikiko errespetua, ez da barne-kontu bat. Zerbitzu publikoaren, etika demokratikoaren eta herritarren konfiantzaren oinarria da.

AMURRIOKO UDALEKO LANGILEEN BATZORDEA

